



Donostian, 2018ko otsailaren 19an

EUSKADIKO SENDAGILEEN ELKARGOEN KONTSEILUAREN DEKLARAZIOA

Euskal Herriko Medikuen Elkargoen Kontseiluak (ESEK), Teknika eta Terapia ez Konbentzionalen (TTEKen) inguruan gertatzen ari diren eztabaida, deklarazio, akzio eta erreakzio ugariak direla medio, zera adierazi nahi du:

Bizi garen XXI. mendean gaudelarik, “medikuntza” hitzari deitura edo abizen desberdinak erantsi nahi izateak ez daukala inolako zentzurik, izan ere medikuntza bakarra baita, izanik metodo zientifikoa bere egiturazko oinarria.

Metodo horrek bere baitan biltzen du planteamendu propioak etengabe berrikustea, une bakoitzean indarrean dauden ezagutzen arabera, bere akats propioak detektatuz eta aldaketak nahiz zuzenketak proposatuz etengabeko hobekuntza-ziklo baten barruan.

Pentsaezina eta onartezina litzateke, gaur egun, duela 200 urtetik hona aldatu ez diren printzipioetan oinarritu eta egungo ezagutzen arabera eguneratu gabe legokeen medikuntza bat.

Baina medikuntzak, bere zereginen, badu alderdi zientifiko horrez gain beste osagairik ere. Medikuen eta pazientearen arteko harremanen dauden alderdi humano eta etikoak ere funtsezkoak eta ezinbestekoak dira pazienteen arretan emaitza positiboak lortu ahal izateko.

Horregatik, eta begi-bistakoa edo Pernandoren egia badirudi ere, jarduera medikoek gure kodeetan jasotzen diren etikaren eta deontologiaren alderdi guzti-guztiak bildu behar lituzketela azpimarratu nahi genuke behin berriz. Eta alderdi horien artean sartzen da, noski, pazienteei agintzen zaizkien terapia eta tratamenduek izan dezaketen egiazko irismenaren berri behar bezala ematea, adibidez, edo profesionalak akatsik eragin dezaketen eta oinarririk gabeko itxaropenak sor ditzaketen osasun-arloko informaziorik ez eman edo publizitaterik ez egitea.



Ez dira inola ere nahasi behar pazientearen erosotasuna edo erlaxazioa gehitzera bideratutako ekintzak, batetik, eta praktika horiekin lotutako helburu terapeutiko intrintsekoak, bestetik.

Horrexegatik, etikaren beste muturrean legoke pazienteei, sendaezinak diren egoeretan, ez aurrera ateratzeko modurik ez eta oinarri zientifikorik ez duten proposamen terapeutikoak gomendatzea, edo zientifikoki agindutako tratamenduak bertan behera uztea nahiz funtsik gabeko itxaropenak sortzea ekar dezaketen proposamenak luzatzea gaixo horiei.

Gisa horretako jardueren aurrean, horrelakorik gertatuko balitz, Elkargook, ESEKen kide garen aldetik, jarrera beligerantea izango dugu aipatu jarduera txar horiek burutzen dituzten lankideekiko, pazienteen interesen defentsan betiere.